

Txanbenat (Jaun Benat) dala ta bi ipui

KONJURUA FRAILLEAREN AURKA

Oiartzungo Legarre etxea conbentua zan, bertan frailleak bizitzen ziran eta auetako bat Txanbenat izenarekin ezagutzen zuten.

Txanbenat-ek eta parroko erretoreak alkarren arteko ezpak izaten zituzten.

Bein batetan Txanbenat-ek erretoreari esan zion nola alako egunean Iruiñera joan bear zun. Au entzunik, erretoreak onela erantzun zion: *A, bai, ondo, ondo; biajea egin ondo.*

Txanbenat-eri iritxi zitzaion bidean jartzeko eguna, eta egun artan erretoreak konjuratu zun arri jasa fraillearen bizkarrera erortzeko.

Txanbenat-ek ikusi zun eguraldiaren aldaketa, eta geroxeago igarri zion bere gaiñean zula erasca, pentsatuaz au erretorearen lana zela. Ordun etxe aldera itzuli zan eta baserri baten bei larru bat eskatu. Eman zioten larrua burutik beera jarri zun eta erretorearen sagastira laisterka joan zan. Sagastia loretan zegoan eta Txanbenat arbola azpitik azpira ibili zan, sagar lore guztik txikitu arte.

Ekintza au amaitu ondoren Iruiñerako bidea berriro artu zun, eta itzuli zanean erretorearekin topo egin zun, eta onek galdetu zion: *Ondo egin al dezu biajea?*, eta Txanbenat-ek erantzun: *Bai, oso ondo; eta zuk nola daukazu sagastia? A!, ez dakit; aspaldian ez naiz izandu.* Ba joan egin bear zenduke eta ikusi nola dagon, frailleak esan zion.

Erretorea sagastira joan zan eta au dena txikituta ikusi zun, aldiberean pentsatuz: *Orrri –Txanbenat-eri, ain zuzen– iñor ez dio pegatzen.*

TXANBENAT, ETSAIA ETA AITA SANTUA

Txanbenat bere amaren etxean arkitzen zan, au taloak erretzen ari zala.

Amak semea bazijoala ikusirik, onela mintzatu zitzaion: *Motel, nora ua?, afariko taloak erretzen ai naiz.* Au entzunik, semeak erantzun zion: *Bai, bai, erre: bereala etorriko naiz.*


Txanbenat-ek deabru bateri dei egin zion galdetuaz zenbat denboran egingo zuan Erromatik biatzea. Etsaiaren erantzuna au izan zan: *Bi minutun. Ez aiz neretzako ona*, esan zion Txanbenat-ek, beste deabru bateri galdera berdiña egiñez. Onek jakinarazi zion minutu baten Erromatik joanetorria egingo zuala, baiña Txanbenat-ek oni ere berdin adierazi zion: *Ez aiz neretzako ona*.

Txanbenat-en jakiñeko galderari, irugarren deabruak onela erantzun zion: *Emen orduko an; eta an orduko emen. Bai, i aiz neretzat ona*, esanez, Txanbenat bat etorri zan, aldiberean kapa jantzi eta etsaiaren gaiñean jarri zan, deardarkatuaz: *Alzate diablo, vete a Roma*.

Erroma iritxi ziren eta Txanbenat-ek Aita Santuaren etxeko atean jo zun. Atezaiak galdetu zion zer nai zun, eta Txanbenat-ek jakinarazi zion Aita Santuarekin egon nai zuala. Atezaiak erantzun zionean ezinezko gauza zala ori, afaldar batekin maiean arkitzen zelako, bisitariak adierazi zion mai aren neurriar artu besterik etzuala nai, eta au entzunik atezaiaren baiezkua lortu zun: *Ori besterik ez badezu, pasa zaitez, esanez*.

Txanbenat urbildu zan Aita Santuarengana eta maiaren gaiñera bastoia bota zun, luzeka eta zabalka, kurutzea egiñez. Aldiberean afaldarra izkukatu zan eta Aita Santuak igarri zion bere laguna deabrua zala.

Txanbenat etxera itzuli zanean, amak taloak erretxen jarraitzen zun eta semearen kapa elurrez beteta ikusirik, galdetu zion: *Motel, nun ibili aiz? Ai ama, ama, Jarako portuan elurra galanki ari du*, Txanbenat-ek erantzun zion. Gero, amak bere semeari taloa eta esnea atera zizkion¹ (Zerbait aldatuta, antzeko ipuia irakurri eta entzutea izan det).



Txanbenat (Jaun Benat) dala ta bi ipui / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Oarso*. – Errenteria-Rentería : Errenteriako Udala = Ayuntamiento de Rentería. – 2ª época nº 24 (22 jul. 1989), p. 48. – OC. T. 5, p. 295-296

1. Errenterian (Zamalbide Auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte, eta Salvador Yarza-bal Berra, 87 urte. Lubeltza Berri baserria. 89-4-9 an.